



elkarrekin together

Beste mundu bat posible izan zen. Beste mundu bat posible da.

JATORRIZKO IDEIA: ELKARREKIN TOGETHER K.E. ZUZENDARITZA: MIGUELTXO MOLINA, PABLO IRABURU, IGOR OTXOA GIDOA: MIGUELTXO MOLINA, PABLO IRABURU, IGOR OTXOA
EKOIZLE ERAGILEAK: ANGEL OIARBIDE, IGOR OTXOA, PABLO IRABURU, JON ARTATXO PRODUKZIO ZUZENDARIA: ITZIAR GARCÍA ZUBIRI ARGAZKI ZUZENDARITZA: MIGUELTXO MOLINA
ZUZENEKO SOINUA: MIGUEL GARCÍA IRABURU POSTPRODUKZIO KOORDINATZAILEA: NURIA PÉREZ MARTÍNEZ MUSIKA: MIKEL SALAS KOMUNIKAZIOA: LANDER IRUIN, ONINART, KULTUR ATELIER

ARENA
KOMUNIKAZION ALERKIBEL

TXO
LAP
ART
PRODUKZIOAK

www.together.eus

**ELKARREKIN
TOGETHER**

etb
ren pertxartzearekin



elkarrekin together

Beste mundu bat posible izan zen. Beste mundu bat posible da.


ZUZENDARITZA: PABLO IRABURU ETA MIGUELTXO MOLINA EKOIZPEN ZUZENDARITZA: ITZIAR GARCÍA ZUBIRI IDEA ORIGINALA: ANGEL OIARBIDE ETA PABLO IRABURU
EKOIZPEN EXEKUTIBOA: PABLO IRABURU ETA IGOR OTXOA ARGAZKI ZUZENDARITZA: MIGUELTXO MOLINA GIDOIA: PABLO IRABURU SOINU BANDA ORIGINALA: MIKEL SALAS
ZUZENEKO SOINUA: MIGUEL GARCÍA EKOIZPEN LAGUNTZAILEA: OHIANE IRIARTE POSTPRODUKZIOA: NURIA PÉREZ KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA: IMANOL L. PEROTXENA



**Espedizio batek munduko nazio
boteretsuenaren historia modernoa alda lezake.**

**Dokumental filme honek iraganerako bidaia batetan
murgilduko gaitu, etorkizunerako bidaia ere izango delarik.**

**Beste mundu bat posible izan zela aurkitzen badute,
beste mundu bat posible dela frogatuko dute.**



Gure itsas historiaren berpizkundera

Gure herriak beti izan du lotura itsasoarekin. Gure kostalde oldarkorrak izaera gogorreko marinel eta itsasontziak eman dizkigu, kontatzen jakin ez dugun istorio epiko eta ederrak utzi dizkigutenak.

Munduari bira ematen lehenak izan ginen; San Juan baleontzia Euskal Herritik Terranovara abiatzen ziren ozeanoz bestaldeko zamaontzi haien ordezkaria da, euskal itsas industriaren loraldi eta nagusitasunaren erakusle.

Orain, gure oinordekoek Estatu Batuetako uretan bale-arrantzan aritu ziren zantzuak ditugu kolono frantsesak eta ingelesak iritsi aurretik. Zenbait datu objektibok emandako arrastoari jarraika, iparramerikako arkeologoekin elkarlanean gabiltza susmo hori egiaztatu nahian, eta gutxienez, orain arte ez bezala, gure arbasoek utzitako arrastoaren berri izan dute.

Abentura berri baten aurrean gaude, gure itsas historiaren berpizkundera berridazten lagunduko digun itsasargia aurkituko dugula sinetsiz. Kontatu ez dugun eta kontatzea merezi duen istorio eder bat.

Espedizioa.

Historiari perspektiba berri bat emanez.

Jatorria: Ezusteko topaketa

1602. urtean espedizio ingeles bat gaur egun Amerikako Estatu Batuak diren kostaldera iritsi zen Bartholomew Gosnold-en gidaritzapean. Maineko kostaldera iristen zen lehen esploratzaile ingelesa izan zen Gosnold. Bere kronikariek bertako indigenekin izan zuten lehen topaketa deskribatu zuten: Euskal txalupa batetan zihoazen, arropa europarrez jantzita, eta inguru haietan Donibane Lohitzuneko arrantzale batzuk ere ibili zirela aipatu zuten natiboek. Placentiatik zetozela azaldu zioten. Gosnold-ek "Placentia of Newfoundland" buruz ari zirela interpretatu zuen, Terranova hegoaldeko euskal arrantzaleen gun e ospetsua. Maineko kostaldetik oso urrun.

Mende batzuk beranduago, Xabier Agote itsas ikerlaria topaketa hura aztertzen hasi zen, xehetasun guztietan erreparatuz. Zalantza handiak ditu natibo amerikar haien jatorria Kanadako Placentia denik, leku hartatik 700

miliatara baitago, txalupa mota horrekin itsasoz iristeko urrunegi. Ikertzen hasten da, eta topaketa hura gertatu zen lekutik oso hurbil inor bizi ez den uharte txiki bat badela jabetzen da, Placentia izenez ezaguna. Bertako historialari eta arkeologoekin iritziak alderatu eta gero, euskal arrantzaleekin lotutako leku hau indiarren bilgune garrantzitsuenetako bat izan izan zenaren susmoa du Agotek. Testuinguru berri honek harrigarria den zerbait argitu lezake: Uharte hori amerikar indioen eta euskal arrantzaleen arteko bizikidetzaren lekukoa izan daiteke.

Misterioa argitzeko asmoz, 2016ko udaran Xabier Agotek diziplina anitzeko espedizio bat gidatu du uhartera, topaketa haren frogak aurkitzea du helburu.



Film dokumentala.

Ikuslego orokorrarentzako ezkutuko istorioa.

*“Kontakizun honek pelikula handi batek beharrezko dituen
elementu guztiak biltzen ditu: abentura, emozioa eta
aurkikuntza. Balio erantsi indartsu batekin: Dena egia da.”*

Esploratzaile talde bat txalupan iritsi da uharte batera. Paisaia erabat naturala da, basatia eta denboran kokatzen zaila. Esploratzaileek beraiekin daramaten materiala deskargatu dute: urpekaritzarako ekipamenduak, indusketarako lanabesak eta argazkigintza tresneria. Haien artean euskaraz hitz egiten dute.

Ipar-amerikako hainbat arkeologo eta urpekari batu zaizkie espediziora. Estatu Batuetako ekialdeko kostan gaude. Elkarrekin, zerbaiten bila ari dira. Lantaldean aritzeak egoera ezberdinak dakartza taldera: elkarlaguntza, naturarekin bategitea eta iraganeke oroitzapenak.

Egunero ikasten dugu zerbait: gaur egun Kanada bezala ezagutzen dugun lurraldean, arrantzale euskaldunek egonaldi luzeak egiten zituzten kolono frantsesak eta ingelesak lehen aldiz iritsi baino askoz lehenago. Badakigu bertako natiboekin elkarlanean aritu zirela, berdinetik berdinerara. Baita hizkuntza berezi bat asmatu zutela ere, bertakoen eta euskaldunen hizkuntzak nahastuz. Kooperazio horren fruitua da Iparramerikako lehen industria.

Kanadako Gobernuak historiako pasarte hori berreskuratzeko jarri duen interesari esker, Kanada

ekialdeko kostaldean iragan hori frogatutzat ematen duten aztarna ugari aurkitu dira. Estatu Batuetan, ordea, ez da ahalegin hori egin. Baina garai batean kostaldeak ez zuen mugarik, eta Agoteren susmoa da estatubatuar lurraldean ere izan zela euskal arrantzaleen eta natiboen arteko elkarlana, beti ere kooperazioan oinarrituta, eta ez zapaltzaile eta zapaldu arteko harremanean oinarrituta. Inork ez dio hari mutur horri tira, horregatik gaude gu hemen.

Espedizioa frogatzen horien bila dabil. Beste mundu bat izan zela frogatu nahi du, beste mundu bat posible izan zela. Agian, iragana berreraikiz etorkizun berria idatz daiteke. Izan zirenenaren bila dabilta, izan nahi dutenaren bila, herri eta kultura gisa haien esentziarik onena.

Espedizioaren urrats bakoitzak mundu misteriotso, ezusteko eta ederrean barneratuko gaitu. Kontakizuna aurrera doan neurrian, ohartzen gara helburua lortzea bezain garrantzitsua dela bidea egitea, bilatzea, ikertzea. Behelainoak sekretu asko ezkututzen dituela ematen du. Balea talde bat arnasa hartzera irten eta berriz ere beraien munduan murgildu da, historia eta denboraz ohartu gabe.



Balioak.

Elkarbizitza istorio bat.

ANGEL OIARBIDE | Sustatzailea

*Ikusezina, ederra eta hauskorra den zerbaiten bila ari gara.
Herri ezberdinen arteko topaketa, euskal gizartearen historian
ahaztutako pasarte txiki bat.*

Iragana frogatutzat emango duten ebidentzien bila dabil espedizioa, eta ebidentzia horien esanahien bila: elkarbizitza eredu baten bila. Objektuak baino, objektu bakoitzak ezkutatzen duen esanahiaren bila dabil, elkarbizitza eredu baten bila dabil.

Uharteak ezkuta litzakeen misterioek gure kontakizunarekiko jakinmina pizten dute. Badakigu zeren bila ari garen: gaur egun berria zaigun elkarrekin gauzak egiteko aintzinako eredu baten bila.

Kontatu nahi dugun istorioa beharrezkoa da egun. Topaketaz ari da, elkarriketat, identitateaz eta

lurraldeaz, norbere burua ezagutzeaz, bestea entzuteaz, iraganaz eta etorkizunaz.

Irlan hondeatzea denboran eta gure identitatean induskatzea izango da. Geure barnealdera doan bidaia bat da hau, ahaztuta dugun historiako onena eta eraikitzeke dugun etorkizuna gordetzen dituen barnealdera bidaia.



Sustatzailea.

Euskal diaspora Euskal Herritik kanpo dugun enbaxadarik handiena da. Euskal sustraiak dituzten milioika pertsonak osatzen duten komunitate aktibo hau, beraien arbasoen jatorriari begirada gainetik kendu gabe, haien abizenak harrotasunez daramatzate, gizarte langile, zintzo eta aurrerakoiaren erakusle.

*Mendeetako euskal itsas historiak, diaspora mundu osoan zehar zabaltzera eraman du.
Orain guri dagokigu, bertotik, kanpora begira jarri eta zubiak eraikitzea.
Hauxe da proiektu hau izendatzen duen elkartze eta topagunearen arrazoia.*

Elkarrekin-Together ekimenak zubiak eraiki nahi ditu munduan zehar banatuta dagoen euskal diasporarekin, elkarbizitza eta kooperazioa bezalako baloreak sustatuz. Film dokumentala lankidetza horren adibide bat da.

**ELKARREKIN
TOGETHER**

Zuzendariak.

Migueltxo Molina – Zuzendaria

2007az geroztik, Arena Comunicación Audiovisualeko argazki zuzendaria, editorea eta errealizadorea da. Bere ibilbide profesionalen zuzendarikide bezala gauzatu dituen proiektu esanguratsuenen artean daude “Pura Vida / The Ridge” (2012) eta “Walls” (2015) luzemetraiak. Lehena hamar herrialde ezberdinetan filmatu zen; eta bigarrena, lau muga eta lau kontinenteetako zortzi herrialdeetan. Bi proiektuak nazioartean banaketa fasean jarraitzen dute, eta mundu zabalean ehundik gora jaialditan izan dira ikusgai. Filmaketa konplexuetan aritzeak eman dion eskarmentuari esker, telebistan hainbat dokumental egin ditu, besteak beste, “Desafío 14+1” (2011), “Amazonas clandestino” (2015) eta “Yasuni, genocidio en la selva” (2014). Horrezaz gain, Migueltxok esperientzia handia du enpresa bideoak, kirol ikuskizunak eta museoetan bideo-instalazioak grabatzen eta editatzen. Proiektu guzti horietan sorkuntza prozesuan aritu da.

Pablo Iraburu – Zuzendarikidea


Arena Comunicación Audiovisualeko sortzailea da. “NomadakTX” (2006), “Pura Vida / The Ridge” (2012), “Walls” (2015) eta “District Zero” (2015) luzemetraietan ekoizle exekutiboa, zuzendarikidea eta gidoilaria izan da. Guztiak, herrialde ezberdinetan filmatu ziren eta

egun, nazioarteko banaketa fasean jarraitzen dute. Dokumentalak egiteaz gain, Iraburu museo eta Gobernu Kanpoko Erakundeentzat aritu da lanean, besteak beste, Medicus Mundi, Oxfam edo Nazio Batuak. Nafarroako Unibertsitatean eskolak ematen ditu, dokumentalak nola egin behar diren erakutsiz.

Igor Otxoa – Zuzendarikidea

2004az geroztik Txalap.ARTeko proiektu zuzendaria eta ekoizlea da. Ikus-entzunezkoetan “NomadakTX” (2006) pelikularekin murgildu zen ekoizle, protagonista eta zuzendarikide gisa. Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, nazioarteko ehundik gora jaialditan izan da 21 sari jasoz. “Nomadak TX” bost kontinenteetako telebistetan eman dute.

Geroztik, “Pura Vida / The Ridge” (2012), “Walls” (2015) luzemetraietan ekoizle exekutiboa izan da. Biak ala biak Donostiako Zinemaldian estreinatu ziren, eta “Pura Vida”k euskal produkzio onenaren saria jaso zuen.



Fitxa teknikoa.

Zuzendaritza:

Migueltxo Molina,
Pablo Iraburu eta Igor Otxoa

Ekoizpen zuzendaritza:

Itziar García Zubiri

Idea originala:

Elkarrekin-Together eta
Angel Oiarbide

Ekoizpen exekutiboak:

Angel Oiarbide, Igor Otxoa,
Pablo Iraburu eta Jon Artatxo

Argazki zuzendaria:

Migueltxo Molina

Gidoia:

Migueltxo Molina, Pablo
Iraburu e Igor Otxoa

Soinu banda originala:

Mikel Salas

Zuzeneko soinua:

Miguel García

Ekoizpen laguntzailea:

Ohiane Iriarte

**Soinu diseinua eta
nahasketak:**

Iosu González - Noisestudioa

Postprodukzioa:

Nuria Pérez

Finantza zuzendaria:

Paulo Muñoa

Komunikazioa:

Lander Iruin, Oninart,
Kultur Atelier



Datu teknikoak.

Filmaketa: Euskal Herria eta AEB

Produkzioa: 2016-2017

Generoa: Dokumentala

Filmazio formatua: 4K

Proiektzio formatua: DCP 4K 1:1.85 audio Dolby Surround 5.1

Iraupena: 93 min

Hizkuntzak: Euskara, ingelesa eta gaztelania

Azpitituloak: Euskara, ingelesa eta gaztelania

Protagonistak.

Xabier Agote

Xabier Alberdi

Ander Arrese

Rebecca Cole-Will

Iosu Etxezarraga

John R. Gillis

Maidier Irigoien

Beñat Iturrioz

Brad Loewen

John Mackechnie

Christina Mardsen Gillis

Mathieu Mercier

Leire Otero

Micah Pawling

Donald Soctomah



Ekoizpena.

Arena Comunicación Audiovisual (www.arenacomunicacion.com)

Zinema dokumentalean ibilbide luzea duen ekoiztetxe nafarra, dokumentalak formatu zinematografikoetara eramateaz bereizten dira, enpresak berak sortu, zuzendu eta ekoiztutako (eta koproduzitutako) hainbat dokumentalengatik jaialdi nazional zein internazionalen sarituak izanak balio izan die goimailakoen artean egoteko.

Txalapart (www.txalapart.com)

Proiektu kultural eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako gipuzkoar ekoiztetxea. Arena Comunicación Audiovisual enpresarekin batera koproduzitu ditu hainbestetan sarituak izan dire Nömadak Tx, Pura Vida eta Walls film dokumentalak. Pura Vida izan zen estreinatu zen urteko dokumentalik ikusiena espainar estatuan. Hiruak izan dira internazionalki banatuak eta bost kontinenteetako herrialdeetako zinema aretoetan erakutsiak eta TBetan emitituak.



ARENA COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL & TXALAP.ART

Gurea aldi baterako enpresa-elkartea baino haratago doa, lagunak gara. Elkarrekin aritzea atsegin dugu. "NomadakTX" luzemetrai dokumentalean ezagutu ginen, eta lehen momentutik ohartu ginen helburu jakin bat duten istorioak kontatzea gustatzen zaigula. Gure pasioa da, eta bat egiten dugu. Urteen joan-etorriarekin, pasioa hazi eta finkatu egin da. "Pura Vida / The Ridge" (2012), "Walls" (2015) luzemetraiekin, gure arteko elkar-ulertzea areagotuz doala ohartu ginen eta istorio baten hari muturrari tiraka, gure inguruan gertatzen direnak eta gure bizimoduan eragina duten gauzak kontatzeko beharra daukagula. Elkarrekin-Together beste adibide bat da. Istorio eder hau kontatzeko beharra sentitu dugu, eta ilusioz ekin diogu film dokumentala ekoizteari.






*Natibo amerikarren eta euskal arrantzaleen arteko
kooperazioa eman zen.*

*Elkarrekin-Together film dokumentalean gezia eta arpoia
uztartuz sinbolo berria sortu dugu, ezberdinen arteko
elkarbizitza irudikatuz.*

*Elkarrekin —Together—, elkarbizitza istorio eder baten lekuko
izan ginelako gogorarazten digu.*



Harremana.

ELKARREKIN - TOGETHER

Artaxona 22 -1.

31.015 IRUÑA (Nafarroa)

www.togheher.eus

info@together.eus



Informazio gehiagorako, materialak eskatzeko edota elkarrizketak kudeatzeko:

Lander Iruin 665 756 780

Aitor Azkonobieta 679 202 899